

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2022ko irailaren 29a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:20

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oriden

Zinegotziak

Ainara Munduate Iguaran, Xabier Ibarguren Azkue, Beñat Solaberrieta Albizu, Bakarne Oriden Albeniz, Bittor Andres Alkorta, Lourdes Salsamendi Goñi, Andoni Torres Fernandez, Jon Basurko Sarasua, Amaia Gozategi Urbieta, Jose Javier Gomez de Segura Arce, Ana Priede Merchan eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Gai-zerrenda

- 1.- Onartzea, egoki bada, ordenantza fiskalak eta beren eranskinak aldatzeko proposamena, eragina 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izango duena.
- 2.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioaren 10/2022 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea, kreditua transferitzeko modalitatean.

- 3.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioaren 11/2022 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatean.
- 4.- Onartzea, egoki bada, AGITAX Gipuzkoako Taxi Elkarteak bidalitako 2023rako taxi-tarifa urbanoak.
- 5.- Onartzea, egoki bada, BPXPORT KIROL ZERBITZUAK SL enpresari KARELA kiroldegiko kudeaketa integralaren eta Arraunetxe eta Mendibeltz futbol-zelaia mantendu eta garbitzeko zerbitzuen adjudikazioa bigarrenez luzatzeko proposamena.
- 6.- Onartzea, egoki bada, prozedura negoziatu bidezko lehiaketa publikoa, Orioko udal-kanpinean aisialdiko igerilekua eta ur-parkea eraikitzeko obrak kontratatzeko.
- 7.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORDENANTZA FISKALAK ETA BEREN ERANSKINAK ALDATZEKO PROPOSAMENA, ERAGINA 2023KO URTARRILAREN 1ETIK AURRERA IZANGO DUENA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Gaia 2022ko irailaren 27ko eta 29ko Ogasun-eta pertsonal-batzordeetan diktaminatu da, segidan zehazten den eran:

1.- Diktaminatzen da Izaera Urbanoko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari dagozkion karga-tasak % 1,5 **IGOTZEA**, era honetara:

Izaera Urbanoko Ondasun Higiezinaren gaineko zergari aplikatu dakiokeen karga-tasa hau da:

- ‰ 4,083, zona industrial edo tertziarioetan kokatuta dauden ondasun urbanoetarako.
- ‰ 1,972, gainerako ondasun higiezinatarako.

Diktaminatzen da, baita ere, hoberi hauek **APLIKATZEA**:

1.- Familia ugariantzako hoberia

Hoberiaren portzentajea aldatu egingo da azaroaren 18ko 40/2003 Legearen 4. artikuluan zehaztutako familia ugariaren kategoriaren arabera:

- Katetoria bereziko familia ugarien kasuan, hoberia %90ekoa izango da.

- Kategoria orokorreko familia ugarien kasuan, hobaria % 50ekoa izango da.

Kasu guztietan, hobariak ezin izango du 250 euroko muga gainditu.

Hobaria lortzeko betebeharrak:

- Familia ugariaren titular diren subjektu pasiboek segidan aipatzen diren agiriak aurkeztu beharko dituzte, familia ugariaren titulua iraungi arte ofizioz hobaria aplikatu ahal izateko, salbu eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen Foru Arauaren aldaketaren onartzen bada:
 - Interesdunaren eskaera, Udalak emandako ereduaren arabera.
 - Familia ugariaren tituluaren fotokopia konpultsatua. Udalak egiaztatuko du familia unitateko kideak ohiko etxebizitzan erroldatuta daudela urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean.
- Familia ugariaren titularrak etxebizitza bat baino gehiagoren jabe badira, hobaria ez da aplikatuko.
- Urteko errolda behin betiko itxi baino lehen eskatu beharko da hobaria. Errolda behin betiko ixten denean, geroago egindako eskaerek ez dute eraginik izango uneko ekitaldian.
- Herritarrek eskaerari aurka egiten ez badio, diruzaintzako langileek datu hauek egiaztatuko dituzte datuen bitartekotzarako plataformatik eta beste administrazio batzuetatik:
 - Familia ugariaren liburua.
 - Ondasun higiezinak: etxebizitzaren titularra.
 - Ondasun higiezinak: udalerritik kanpoko etxebizitzak.
- Betiere, aldeztu aurretik baldintza hauek betetzen badituzte:
 - Familia ugariaren ohiko etxebizitza izan behar du eta familiako kideak bertan egongo dira erroldatuta.
 - Familia-unitateko kideek ez dute jabetzan eduki behar beste ondasun higiezinik, ohiko etxebizitzaz gain.

2.- Energia aprobetxatzeko sistemak

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauaren 15. artikulua eta OHZren apirilaren 15eko 3/2021 Foru Arauaren ondorengo aldaketaren arabera, hobari hauek aplikatuko dira:

Zergaren kuota osoaren %40ko hobaria, eguzkitik edo bestelako energia berriztagarrietatik datorren energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatu diren ondasun higiezinentzat. Hobari hau aplikatzeko baldintza izango da beroa sortzeko instalazioek berokuntzako eta ur bero sanitarioko kolektoreak edo sistemak (UBS) izatea, administrazio eskudunak homologatuak.

Era berean, zergaren kuota osoaren %40ko hobaria aplikatuko da A edo B motako energia eraginkortasunaren etiketa duten ondasun higiezinentzat.

Hobaria eskuratzeko aurkeztu beharreko agiriak:

- Hobariaren xede den higiezina identifikatzeko eskabide-orria, sinatua.

39/2015 Legearen 28. artikularekin eta 2016/679 (EB) Erregelamenduko 6.1 artikularekin bat etorrita, interesatuak, Eusko Jaurlaritzako Erregistroan eta Nisae elkarreragingarritasun-nodoaren bidez, hobaria eskuratzeko baldintzak betetzen ote dituen zehazteko informazioa zuzenean kontsultatuko du Orioko Udalak.

- Eusko Jaurlaritza - Energia-eraginkortasuneko etiketaren baliozkotzea.

2016ko apirilaren 27ko Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21. artikularen arabera, eskatzaileak bere datuak kontsultatzearen aurka egin ahal izango du, eta aurka egiteko arrazoiak alegatu beharko ditu; kasu horretan, Udalak dagozkion dokumentuak aurkeztera behartu lezake.

Eskaera jasotzen denean, Udalak ezin badu behar den dokumentazioa telematikoki eskuratu, eskatzaileak aurkeztu beharko du.

Hobariaren iraupena:

- Hobariak eskaera egiten den urtean emango den ordainagirian izango ditu ondorioak, betiere eskatutako ziurtagiria indarrean badago urtarilaren 1ean. Eskaerak urtero berritu behar dira, hurrengo puntuan adierazten den epean.

Hobari-eskaerak aurkezteko epea:

- Hobari-eskaerak ekitaldi bakoitzeko urtarrilean eta otsailean aurkeztuko dira, eta ez da onartuko hurrengo data batzuetarako eskaerarik.

Zergaldi batean ezin izango da inoiz hobari bat baino gehiago hartu.

Hobari horiek aplikatzeko, nahitaezkoa izango da Udalaren zergak ordainduta izatea. Baldintza hori ezinbestekoa da hobaria emateko, eta betetzen ez bada, eskubidea galduko da.

Bestalde, indarrean segitzen dute ondoko errekaratu hauek:

Subjektu pasiboaren edo hirugarrenen (alokairuagatik edo erabileraren lagapenagatik) ohiko etxebizitza ez diren bizitoki erabilerako ondasun higieziei %50eko erreargua aplikatuko die Orioko Udalak zergaren kuota likidoaren gainean. Errekargu hori zergaren subjektu pasiboei exijituko zaie eta zergarekin batera sortuko da; likidatu ere, urtero likidatuko da, kuotarekin batera.

Errekargu hori aplikatzeko, hau hartuko da bizitoki-erabilerako higieizintzat: katastroan etxebizitza erabileradun gisa jasota dagoen lokala. Etxebizitzaren eranskinak ere sartuko dira, erregistroan finka bakar gisa ageri badira. Eragin horietarako, bizitoki-erabilerako higiezin bat ohiko etxebizitza dela kontsideratuko da, baldin eta higiezin hori Udaleko erroldan okupatzaileen ohiko etxebizitza gisa jasota badago, zerga sortzen den datan.

Errekarguaren salbuespenak:

1. Ondasun higiezinaren gaineko zergen hobariren bat gozatzen dutenak.
2. Udaleko Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren matrikulan alta emandako jarduerari atxikitutakoak.
3. Zergaren sortzapenaren aurreko urtean 9 hilabete baino gehiagoz alokatuta egon diren etxebizitzak (alokatuta bakarrik; ez dira sartzen erabilera-lagapenak). Honako dokumentazioa aurkeztu beharko da, salbuespena aplikatzeko:
 - Salbuespena aplikatzeko eskaria.
 - Alokairu-kontratua, behar bezala datatu eta sinatuta. Kontratu horretan agertu behar du higiezinak etxebizitza-xedea edo erabilera izango duela.
 - Alokairua kobratu izana justifikatzen duten agiriak, zergaren sortzapenaren aurreko urteari dagozkionak.

Gipuzkoako Foru Ogasunari alokairu-kontratu horien berri emango zaio.

4. Zahar-egoitzatan erroldatutako pertsonen titulartasuneko etxebizitzak. Salbuespen hau aplikatuko zaio, bakar-bakarrik egoitzan sartu aurretik pertsona horren ohiko etxebizitza zenari.
5. Herentzia baten parte diren etxebizitzak, titularra hil eta bi urteko epean.
6. Zergaren sortzapenaren aurreko urteko azaroan edo abenduan erositako etxeak, non, nahiz eta urtarrilaren 1ean inor ez egon erroldatuta, erroldatzeko tramitea egin den zergaren sortzapenaren urteko lehen hiruhilabetekoan.
7. Legez aurri-egoeran deklaraturako eraikinetan kokaturako etxebizitzak.

8. Hiri katastroaren erregistroan bi finka independente osatzen dituzten etxebizitzak, baina etxebizitza bakar modura erabiltzen direnak. Zirkunstantzia horien balorazioko txostena udal zerbitzu tekniko eskudunek egingo dute.
9. Lurzoru urbanizaezinean eta lurzoru urbanizagarrian kokatutako etxebizitzak.
10. Urbanistikoki antolamenduz kanpokotzat kalifikatutako eraikinetan dauden etxebizitzak.
11. Ohiko etxebizitza ez diren etxebizitzak, baldin eta urteko gutxienez 300 kWh-ko energia-kontsumoa frogatzen badute. Zergaren sortzapenaren aurreko urtean izandako elektrizitate edo gas kontsumoen fakturak aurkeztuta frogatuko da zirkunstantzia hori.
12. Zaintza pertsonalak behar dituzten mendeko pertsonen jabetzako etxebizitzak, baldin eta mendeko pertsona hori bera zaintzeaz arduratzen den familiarraren etxean bizi eta errolatuta badago. Salbuespen hau aplikatzeko beharrezkoa izango da utzi den etxebizitza hori mendeko pertsonaren ohiko etxebizitza izatea, familiarraren etxebizitzara joan aurretik.

Diktaminatzen da nekazaritza-izaerako ondasun higiezinaren gaineko zergari aplikatzen zaion karga-tasa %1,10ean **MANTENTZEA ETA EZ IGOTZEA**.

2.- Diktaminatzen da **MANTENTZEA ETA EZ IGOTZEA** Orioko jarduera ekonomikoen gaineko zergaren exakziorako hainbat ahalmen arautzen dituen ordenantza fiskalean ezarritako gutxieneko kuotak gehitzeko koefiziente bakarra.

3.- Diktaminatzen da **ALDATZEA** izaera urbanoko lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskaleko koefizienteak eta karga-tasak, era honetara:

I. ERANSKINA. KOEFIZIENTEAK

Segun eta balio-gehikuntza noiz sortu den, koefiziente eta karga-tasa hauek aplikatuko dira:

Noiz sortua	Koefizienteak	Karga-tasak
Urtebetetik behera	0,14	%30
Urtebete	0,13	%30
2 urte	0,15	%30
3 urte	0,16	%30
4 urte	0,17	%30
5 urte	0,17	%30
6 urte	0,16	%20
7 urte	0,12	%20

8 urte	0,10	%20
9 urte	0,09	%20
10 urte	0,08	%20
11 urte	0,08	%10
12 urte	0,08	%10
13 urte	0,08	%10
14 urte	0,10	%10
15 urte	0,12	%10
16 urte	0,16	%10
17 urte	0,20	%10
18 urte	0,26	%10
19 urte	0,36	%10
20 urte edo gehiago	0,45	%10

Gehieneko koefiziente horiek urtero eguneratuko dira foru-arau baten bidez, eta eguneratze hori Gipuzkoako Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorreari buruzko foru-arauen bidez egin daiteke.

4.- Diktaminatzen da %1,5 **IGOTZEA** trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergari dagozkion tarifak, era honetara:

I. TARIFEN TAULA

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 14/1989 Foru Araua aldatzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Zerga Erregimenari buruzko abenduaren 27ko 4/1999 Foru Arauan xedatutakoa betetzeko, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera exijituko da zerga hori, ondoko tarifa-taularen arabera:

POTENTZIA ETA IBILGAILU-MOTA	KUOTA, EUROTAN
A) Turismoak	
9 zalditik beherakoak	42,27
9tik 11,99ra bitartekoak	87,61
12tik 13,99ra bitartekoak	143,42
14tik 15,99ra bitartekoak	203,81
16tik 19,99ra bitartekoak	278,85
20tik gorakoak	344,79

B) Autobusak	
21 plaza baino gutxiago	198,16
21 plazatik 50era	281,91
50 plazatik gorakoak	353,33
C) Kamioiak	
1.000 kg-tik beherako karga erabilgarria dutenak	100,36
1.000tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	194,66
2.999tik 9.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	276,91
9.999 kg baino gehiagoko karga erabilgarria dutenak	347,09
D) Traktoreak	
16 zaldi fiskaletik beherakoak	43,08
16 zaldi fiskaletik 25era	66,52
25 zaldi fiskaletik gorakoak	198,16
E) Trakzio mekanikoko ibilgailuek eramandako atoiak eta erdi-atoiak	
1.000 kg-tik beherako eta 750 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak	43,08
1.000tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	66,52
2.999 kg baino gehiagoko karga erabilgarria dutenak	198,16
F) Bestelako ibilgailuak	
Ziklomotorrak	11,41
125 cc arteko motorrak	11,41
125 cc eta 250 cc arteko motorrak	19,48
250 cc eta 500 cc arteko motorrak	39,23
500 cc eta 1.000 cc arteko motorrak	77,45
1000 cc-tik gorako motorrak	154,90

Zerga hori arautzen duen ordenantza fiskalean ezarritako hobari guztiek indarrean segitzen dute, aldaketa batzuekin, era honetara:

II. HOBARIAK

Hobariak emateko, aldeztu aurretik eskatu egin beharko da. Hobariak eskaera egin eta hurrengo ekitaldian aplikatuko dira eta ez dira atzeraeraginezkoak izango. Hala ere, onura fiskala ekitaldiko urtarrilaren 15a baino lehen eskatzen bada, eskatzen den ekitaldirako emango da, baldin eta zergaren sorrarazpenaren egunean hobaria hartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen badira.

Hobari hauek aplikatu ahal izango dira:

- %75eko hobaria, ibilgailu elektrikoetan eta energia elektrikoa eta erregaiak konbinatzen dituzten ibilgailu hibridoetan.
- Matrikulatu berri diren eta 120 gramo karbono dioxido (CO₂)/kilometro baino gutxiago isurtzen duten ibilgailuek %25eko hobaria izango dute; eta 110 gramo karbono dioxido (CO₂)/kilometro baino gutxiago igortzen dutenek, %40koa.

Hobaria 2 urtetan emango da, ibilgailuaren lehen matrikulaziotik hasita.

Hobarirako eskubidea izateko, interesdunek, eskaeraz gain, Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren txartela eta energia-eraginkortasunaren etiketa aurkeztu beharko dituzte, baldin eta ibilgailu hori ez bada ageri Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Institutuak (IDAE) argitaratutako «Erregaiak eta CO₂-emisioak kontsumitzeko gida»n.

Zergaren kuotaren %100eko hobaria ezarriko zaie ibilgailu historikoei edo gutxienez 30 urteko antzinatasuna dutenei, fabrikatu ziren egunetik kontatzen hasita. Data hori ezagutzen ez bada, lehen matrikulaziokoa hartuko da aintzat edo, bestela, mota edo aldaera hori fabrikatzeari utzi zitzaion eguna.

Hobari hau eskatu beharrekoa da eta, Udalak onartu ondoren, eskatu eta hurrengo zergaldian sortuko ditu ondorioak.

5.- Diktaminatzen da MANTENTZEA ETA EZ IGOTZEA eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergari dagozkion tasak, era honetara:

ERANSKINA

Karga-tasa orokorra: 5%

ERAIKUNTZA, INSTALAZIO EDO OBRA MOTA	HOBARIAK (%)
a) Irabazi asmorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoek Orioko Hirigune Historikoaren edo Hirigune Historikoaren mugaketa-eremuaren barruan egiten duten eraikuntza, instalazio edo obra guztiak, gehienez ere 2 solairu eta estalkipeko aprobetxamendua dutenak	%60
b) Irabazi asmoa duten pertsona fisiko edo juridikoek Orioko Hirigune Historikoaren edo Hirigune Historikoaren mugaketa-eremuaren barruan egiten duten eraikuntza, instalazio edo obra guztiak, gehienez ere 2 solairu eta estalkipeko aprobetxamendua dutenak	%20
c) Baserri eta eranskinetako edozein eraikuntza, instalazio edo obra	%50
d) Sustapen publiko edo pribatuko etxebizitza sozialetako edozein eraikuntza, instalazio edo obra	%60

e) Erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak sustatzeko edozein eraikuntza, instalazio edo obra	%40
f) Irisgarritasuna hobetzeko edo elementu komunetako oztopo arkitektonikoak kentzeko edozein eraikuntza, instalazio edo obra. Hobari hau ez zaie aplikatuko eraikin berrietan egindako eraikuntza, instalazio eta obrei, eta ezta ere eraikuntza baten birgaitze integrala dakarten eraikuntza, instalazio eta obrei	%95
g) Desgaitasuna duten mugikortasun murriztuko pertsonen etxebizitzak egokitzeko edozein eraikuntza, instalazio edo obra	%80
h) Eraikuntza, instalazio eta obretan eguzki-energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikoa ahalbidetzen duten sistemak ezartzen direnean autokontsumorako. Hala ere, hobari hori aplikatzeko, beroa sortzeko instalazioek Administrazio eskudunak homologatutako kolektoreak izan behar dituzte	%95
i) Merkataritza- eta industria-establezimendu berriak irekitzeko eraikin, instalazio eta obra guztietan, baldin eta jarduera ekonomiko horretarako lokalaren azalera 140 metro koadrokoa edo txikiagoa bada	%90

Orioko Hirigune Historikoaren mugaketa-eremuaren barruko gutxieneko tarifa	38,32€
Gutxieneko tarifa udalerriaren gainerakoan	76,58€

Zerga hau aplikatzeko arauak

Obra handietan, hondakinen kudeaketa behar bezala bermatzeko, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren %50eko abala aurkeztu beharko da, eta obrak amaitu ondoren, aurkeztutako abala itzuliko da, baldin eta hondakinen kudeaketa behar bezala eta egoki egin dela egiaztatzen bada, dagozkion ziurtagiriak aurkeztuta.

Ezin da hobari bat baino gehiago aplikatu aldi berean. Hau da, eraikuntza, instalazio edo obra bakoitzak hobari bakarra izango du, zergadunarentzat onuragarriena.

Obrak irisgarritasun eta bizigarritasun arlokoak izango dira eta, beraz, hobaria izango dute, baldin eta udal-teknikari batek ezintasunak dituzten pertsonen irisgarritasuna eta bizigarritasuna hobetzeko nahitaezkoak direla frogatzen badu ziurtagiri bidez.

6.- Ondoren zerrendatzen diren tasei aplikatzen zaizkien tarifak **MANTENTZEA eta **EZ IGOTZEA** diktaminatzen da:**

- Udal erabilera publikoko lurretan zangak eta hobiak irekitzea.

- Udal erabilera publikoko lurak okupatzea (ezarritako hobariak indarrean segituko dute).
- Ibilgailuak sartzea espaloian barrena eta bide publikoa erreserbatzea modu eksklusiboan aparkatzeko, ibilgailuak geratzeko eta edozein motatako salgaien zama-lanerako.
- Indar elektrikoa, ura, gasa edo beste edozein fluido garraiatzeko linea, hoditeri eta galeriak.
- Udal erabilera publikoko lurak okupatzea, mahaia, aulkiak, tribunak, oholtzak eta antzeko elementuak jarrita, irabazteko asmoarekin, salbuespen honekin: mahai, mahaitxo, aulki eta abarrak establezimenduaren barruan gordetzen ez dituzten establezimenduen titularrei, udalerrian duten kokalekua edozein dela ere, 29,00 euroko tarifa aplikatuko zaie metro koadro edo zatiki bakoitzeko eta urteko.
- Bide publikoan kioskoak instalatzea.
- Udal erabilera publikoko lurretan postuak, barrakak, salmenta-guneak, ikuskizunak, atrakzioak eta horrelakoak instalatzea (kaleko industriak, industria ibiltariak eta zinema-filmak barne). Horretarako ezarrita dauden hobariak indarrean segituko dute, baina tarifaren aplikazio-arau hauek jarraituta:

Tarifa hau aplikatzeko arauak

Irabazi asmorik gabeko udal elkarte eta entitateek ez dute kaleko salmentarako tarifa ordaindu beharko. Asteko azokan kaleko salmenta postu baten titular batek ez badu dagokion tarifa ordaintzen, gehienez ere 3 hilabeteko epean, postuaren titulartasunerako eskubidea galduko du eta utzi egin beharko du.

Telesail baten grabazioari edo filmatzeari eta antzeko jardueri dagokienez, aplikatu beharreko tarifaz gain, grabazioan edo filmatzean kalteak edo galerak sortzen badira, Oriko Udalak eragindako kalte edo galera guztiak ordaintzeko eskatuko du.

Zirkuak jartzeari eta telesailak grabatu edo filmatzeari eta antzeko jardueri dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren edo Oriko Udalaren elkarten erregistroan inskribatuta dauden irabazi asmorik gabeko elkarteek edo pertsona fisikoek ez dute erreferentziazko tarifarik ordaindu beharko edo dagokien hobaria aplikatuko zaie; interes kultural-turistikoko entitateek ere ez, gaiagatik eskumena duen udal-batzorde informatzaileak hala diktaminatzen badu.

Tarifan %50eko hobaria aplikatuko da, telesail baten grabazioa edo filmatzea eta antzeko jarduerak oso-osorik euskaraz egiten direnean.

- Trakzio mekanikoko ibilgailuak udalerriko kaleetan aparkatzea, horretarako erabakitako zonen barruan eta muga jakin batzuekin. Aplikatu beharreko tarifak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, 90. zenbakian, 2022ko maiatzaren 13an.
- Bide publikoko lurzorua, lurpearen eta hegalkinen erabilera pribatiboa eta aprobetxamendu berezia.
- Auto-taxien eta errentako gainerako ibilgailuen lizentziak eta baimenak ematea.
- Udal-administrazioak edo udal-agintariak norbaiten eskariz emandako agiriak.
- Lurzoruari eta hiri-antolamenduari buruzko legeek exijitutako lizentzia urbanistikoak ematea.
- Udal-kanposantuan zerbitzuak eta kontzesioak ematea.
- Ibilgailuak geraraztea eta bide publikotik erretiratzea.
- Orioko Eguneke Zentroan ile-apaindegi zerbitzuak ematea
- Jarduera-lizentzia ematea eta jardueraren eta instalazioaren funtzionamenduari buruzko ikuskaritza egitea.
- Arriskugarri gerta daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia ematea, zehaztapen honekin: Tarifa hau aplikatuko da: 125 € animalia bakoitzeko eta lizentzia berri edo berriztapen bakoitzeko.
- Udal-pilotalekua edo Antilla hondartzako kabinak erabiltzea. Hala ere, udal-pilotalekuaren tarifak %4 igoko dira eta Orioko Antilla hondartzako kabinen tarifak ez dira batere igoko.
- Orioko Udal Musika Eskolan egindako ikasketak 2022-2023 ikasturtean aplikatu beharreko tarifak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, 140. zenbakian, 2022ko uztailaren 22an.
- Udalbatzarraren aretoaren erabilera, zehaztapen honekin: Tarifa %50eko hobaria aplikatuko da, telesail baten grabazioa edo filmatzea eta antzeko jarduerak oso-osorik euskaraz egiten direnean.
- Azurza Etxeko tutoretzapeko apartamentuen erabilera.

7.- Ondoren zerrendatzen diren tasei aplikatzen zaizkien tarifak **IGOTZEA** diktaminatzen da:

- Kutxazain automatikoak eta bide publikotik irismena duten salmenta-makinen instalamendu eta funtzionamendua. Finantza erakundeek edo gordailu-

erakundeek fatxadetan kutxazain automatikoak instalatu eta funtzionamenduan edukitzeagatiko zerga-tasa urteko 471,82 eurokoa izango da. Tasa honen b) atala 46,98 eurokoa izango da metro lineal eta urte bakoitzeko.

- Udal kanpinaren erabilera. Diktaminatzen da denboraldien arabera, aplikatu beharreko tarifak %10, %5 eta %2,5 gehitzea, hurrenez hurren.
- Udal-kiroldegia erabilera Dagozkion tasak %4 igotzea diktaminatzen da, orokorrean.
- Udal-futbol/softbol zelaiaren erabilera. Dagozkion tasak %4 igotzea diktaminatzen da, orokorrean
- Tennis, paddle eta squasheko udal pisten erabilera. Dagozkion tasak %4 igotzea diktaminatzen da, orokorrean
- Arraunetxeko instalazioen erabilera. Dagozkion tasak %4 igotzea diktaminatzen da, orokorrean
- Udal-kiroldegiko garajeen erabilera. Dagozkion tasak %1,5 igotzea diktaminatzen da, orokorrean.
- Mendibeltz futbol/sofbol zelaiaren azpiko garajeen erabilera Dagozkion tasak %1,5 igotzea diktaminatzen da, orokorrean.

8.- Tarifa hauek **IGOTZEA diktaminatzen da, era honetan:**

4.11. - Kultur etxeko aretoen erabilera

1. TARIFA

Orioko irabazi asmorik gabeko elkarteek ez dute inolako tarifarik ordaindu beharko kultur etxeko lokalak erabiltzeagatik.

Merkataritza-entitateek, irabazi asmoa duten elkarteek edo pertsona fisikoek tarifa hauek ordaindu beharko dituzte kultur etxeko lokalak erabiltzeagatik:

a) Areto nagusia erabiltzeagatik	
Egun bakarrean erabiltzeagatik	27,00 euro
Egun batez baino gehiagoz erabiltzeagatik	19,50 euro/eguneko
b) Bilera-gela erabiltzeagatik	
Egun bakarrean erabiltzeagatik	19,50 euro
Egun batez baino gehiagoz erabiltzeagatik	17,50 euro/eguneko
c) Gelak erabiltzeagatik	

Egun bakarrean erabiltzeagatik	19,50 euro
Egun batez baino gehiagoz erabiltzeagatik	17,50 euro/eguneko

2. TARIFA

Liburuen salmentagatik aplikatu beharreko tarifak hauek dira:

LIBURUAREN IZENBURUA	PREZIOA EUROTAN
Orio Historia argazkitan	5,00
Orio Herrixka	5,00
Orio Oro Hori	5,00
Orio Arraunean	5,00
Uztapide gogoan	5,00
Jorge Oteiza (Egonezinaren laudorioa)	5,00
Kezka baten historia (Oteitza)	5,00
Orioko Patroiak	5,00
Orioko euskara	5,00
Gerra bat barruan dugula	12,00
Euskal arraunketaren aro modernoa (I, II eta III)	18,00

4.12. - Udalbatzarraren aretoaren erabilera

a) Ezkontza zibilak, heriotzagatiko ekitaldi zibilak edo bestelako ekitaldi zibilak egiteko:

- Tarifa bakarra: 72,70 euro / ekitaldiko

b) Telesailen grabazioetarako eta antzeko jardueretarako:

- Lehenengo 2 orduak arte edo erabilera-zatikia.....288,60 euro.
- Bigarren ordutik edo frakziotik aurrera.....144,30 euro / ordua.

Tarifan %50eko hobaria aplikatuko da, telesail baten grabazioa edo filmatzea eta antzeko jarduerak oso-osorik euskaraz egiten direnean.

4.13. Azurza Etxeko tutoretzapeko apartamentuen erabilera

a) Erabiltzaile batentzako apartamentua.....872 euro / hilabetea / pertsona

b) 2 erabiltzailerentzako apartamentua.....692 euro / hilabetea / pertsona

Erabiltzaileei hobari hauek aplikatuko zaizkie, laneko eta kapitaleko errenta osoengatik dituzten diru-sarreraren arabera:

- Erabiltzailearen diru-sarreraren zenbatekoa hileko 750 euro baino gehiago ez denean, hileko 200 euroko hobaria aplikatuko zaio.
- Erabiltzailearen diru-sarreraren zenbatekoa hileko 751 eta 1.100 euro artekoa denean, hileko 100 euroko hobaria aplikatuko zaio.
- Erabiltzailearen diru-sarreraren zenbatekoa hileko 1100 euro baino gehiago denean, ez zaio hobaririk aplikatuko

4.14. Turismo-bulegoa erabiltzea

1. TARIFA ezabatzea erabaki da.

2. TARIFA

Aplikatu beharreko tarifak hauek dira:

PRODUKTUA	EURO/UNITATEA
Cuaderno de Urogallo guía del camino del norte	6,50
Orio-Oteiza katilua	4,00
Orioko argazkidun koaderno handia	2,80
Orioko argazkidun koaderno txikia	1,80
Iñaki Arrillagaren koadroak	30,00

3. TARIFA

Aplikatu beharreko tarifak hauek dira:

PRODUKTUA	EURO/UNITATEA
Bisita gidatua: «Errioa, gure nortasuna»	3,00
Erraldoi baten salmenta: Pello edo Nikolasa	20,00
Erraldoi-bikotea saltzea: Pello eta Nikolasa	34,00

4.15. - Udaletxeko teilatupeko gelaren erabilera

Ezabatzea erabaki da.

4.16. - Txu-txu trenaren erabilera eta publizitate-iragarkiak bertan jartzea

Aplikatu beharreko tarifak hauek dira:

TXU-TXU TRENA PLAZATIK HONDARTZARA, UDAKO DENBORALDIAN	
Joan-etorriko bidaia	1,50 €/pertsonako
Joaneko bidaia	1,50 €/pertsonako
Bueltakeo bidaia	1,50 €/pertsonako
3 urtetik beherakoek	Doan
10 bidaiaiko bonua	6 €
Txu-txu trenean iragarkiak jartzeagatik	85 €/moduluko

4.17. - Udalaren txosnaren erabilera

Ezabatzea erabaki da.

4.18. - Udalaren oholtzaren erabilera

Alokairuari aplikatu beharreko tarifak hauek dira:

Oholtza modularra erabiltzeagatik	5,50 euro/m2 eta eguneko
Oholtza estalia erabiltzeagatik (8mx6m)	265 euro/eguneko
Oholtza estalia erabiltzeagatik (12mx8m)	530 euro/eguneko

Garraio-gastuak txosna errentan hartzen duenaren kontura izango dira.

150 €-ko fidantza eskatuko da eta eragindako kalte-galera guztiak ordaintzea.

4.19. - Katea (KTA) eraikineko lokalen erabilera

Alokairuari aplikatu beharreko tarifak hauek dira:

Egun bakarrean erabiltzeagatik	27,00 euro
Egun batez baino gehiagoz erabiltzeagatik	19,50 euro/eguneko
Beste edozein lokal erabiltzeagatik (m2-ko eta eguneko)	0,10 euro

Irabazi asmorik gabeko Orioko elkarteek ez dituzte tarifa horiek ordaindu beharko; beraz, tarifa horiek merkataritza-elkarteei, irabazi asmoa duten elkarteei edo pertsona fisikoei aplikatuko zaizkie.

Lokalak erabiltzea doanekoa izango da, bi betebeharrak hauek batera betetzen direnean: zerbitzua euskaraz ematen denean eta diru-saririk kobratzen ez denean.

4.20. Salatxo udal-aretoaren erabilera

Orioko irabazi asmorik gabeko elkarteek ez dute tarifarik ordaindu beharko Salatxo udal-aretoa erabiltzeagatik.

Merkataritza-entitateek, irabazi asmoa duten elkarteek edo pertsona fisikoek tarifa hauek ordaindu beharko dituzte Salatxo udal-aretoa erabiltzeagatik:

Egun bakarrean erabiltzeagatik	27,00 euro
Egun batez baino gehiagoz erabiltzeagatik	19,50 euro/eguneko

4.21. Gaztelekuaren erabilera

Ezabatzea erabaki da.

4.22. - Udalaren parrillen erabilera

Tarifa hau aplikatuko da: 85 € parrilla eta egun bakoitzeko.

Garraio-gastuak parrilla alokatzen duenaren kontura izango dira.

150 €-ko fidantza eskatuko da eta eragindako kalte-galera guztiak ordaintzea.

4.23. Udal-ludotekaren erabilera

Aplikatu beharreko tarifak hauek dira:

Ikasturte osoa, (2022ko iraila - 2023ko ekaina)	50,00 euro
Bigarren matrikulazio-aldia (2023ko urtariletik ekainera)	35 €
Hirugarren matrikulazio-aldia (2023ko apiriletik ekainera)	20 €

Berme Errentaren (DBE) edo Gizarte Larrialdietarako Laguntzen (GLL) onuradunek ez dituzte kuota ordainduko.

Zerbitzu honen erabiltzailea DBE edo GLL jasotzen duen familia-unitate batekoa dela egiaztatuko du udal-teknikari batek.

4.24. Arraunetxeko areto nagusiaren erabilera

EKITALDIAK	
Egun erdia	200,00 €
Egun osoa	300,00€

SALBUESPENAK: Irabazi asmorik gabeko Orioko elkarteek ez dute inolako tarifarik ordaindu beharko Arraunetxeko areto nagusia erabiltzeagatik. Jarduerak 100 pertsona baino gutxiago bilduko baditu, Kultur Etxera edo Salatxo aretora bideratuko dira.

4.25. Etxez etxeko zerbitzuaren erabilera

- Lanegunetan (astelehenetik ostiralera): 15,00 €/orduko.
- Larunbat, igande eta jaiegunak: 18 €/orduko.

4.26. Zarata-neurketaren erabilera Orioko ostalaritza-establezimenduetan

Aipamen hau gehitzea erabaki da: Zarata-neurketak eskatzen direnean, neurketa horien kostua salatzailearen edo salatuaren kontura izango da. Salatuari egindako zarata-neurketak zuzenak badira, neurketaren kostuak salatzailearen kontura izango dira, eta zarata-neurketak okerrak badira, salatuaren kontura izango dira gastuak.

4.27. Orioko Udalak antolatutako ikuskizun eta emanaldietarako sarreraren tarifak

Orioko Udalak antolatutako ikuskizun eta emanaldietarako sarrerak ordaintzeko tarifa hauek onartzea diktaminatzen da:

Ekitaldiaren aurrekontua 600 €-koa edo txikiagoa bada	Doan
Ekitaldiaren aurrekontua 601-1500 € artekoa bada	2€
Ekitaldiaren aurrekontua 1501-3000 € artekoa bada	5€
Ekitaldiaren aurrekontua 3001 eurotik gorakoa bada	10€

Udal-batzorde eskudunak ikuskizun berezien tarifak ezarri ahal izango ditu, interes sozial, kultural edo bestelakoengatik. Tarifa hori, gehienez, 20 eurokoa izango da.

4.28. Udal-baratzeak erabiltzea

Aplikatu beharreko tarifak hauek dira:

40m ² -ko baratzeak	36,00 euro/urteko
60m ² -ko baratzeak	54,00 euro/urteko

4.29. Udan ikastaroak eta jarduerak emateagatik tarifa (UDA kanpaina)

Tarifa bakarra ezarri da, 45,00 eurokoa, udan egindako hamabost eguneko ikastaro edo jarduera bakoitzeko.

9.- Kontuan hartuta 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera mankomunatu zela zaborrak eta hondakin solido urbanoak biltzeko zerbitzua, aplikatu beharreko tarifak Urola Kostako Udal Elkarteko Batzar Nagusiak ekitaldi ekonomiko bakoitzerako onartzen dituenak izango dira.

10.- Etxebizitzetara eta gainerako establezimenduetara etxeko eta industriako erabileretarako edateko uraren horniduragatik eta ur harguneengatik aplikatu beharreko tarifak Gipuzkoako Ur Partzuergoaren Batzar Orokorrak ekitaldi ekonomiko bakoitzerako onartzen dituenak izango dira.

11.- Tokiko zergei eta zuzenbide publikoko gainerako diru-sarrerari aplikatzeko arau hauek **MANTENTZEA** diktaminatzen da: Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 10. artikuluan xedatutakoa betez, Orioko udalerriko udal-zerbak eta zuzenbide publikoko gainerako diru-sarrerak ordainarazteari dagokionez, ez da berandutze-interesik eskatuko borondatezko aldiaren eskatu diren ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko akordioetan, baldin eta horiek aldiaren aldiko muga-eguna duten zorrak badira, modu kolektiboan jakinarazi badira eta horien ordainketa, osotasunean, sortu ziren urte berean egiten bada.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasun- eta pertsonal-batzordeak 2022ko irailaren 27an eta 29an emandako diktamenak ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA ordenantza fiskalen eta beren eranskinen aldaketari, eragina 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izango duena, erabaki honen azalpenean jasota dauden terminotan.

2.- JENDAURREAN JARTZEA erabaki hau eta hasitako espedientea, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Aginduaren 16.1 artikuluan ezarritakoa betez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-taulan iragarkiak argitaratuz, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Udaletxeko idazkaritzan.

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita; betiere, bulego-orduetan.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluko zerrendan agertzen direnak.

d) Aurkezteko lekua: Udaletxeko Sarrera Erregistro Nagusian. Erreklamazioak aurkez daitezke, baita ere, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten dituen tokietan.

e) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendaurreko epea amaitu eta erreklamazio edo oharrik aurkezten ez bada, hartutako erabakiak eta aldatutako ordenantzen eranskinak behin betikoak bilakatuko dira, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Emandako botoa azaltzeko, Anuska Esnal alkateak hartzen du hitza, Ogasun- eta pertsonal-batzordeko presidentea den aldetik, eta adierazten du, oro har, ordenantza fiskalei eta haien eranskinei dagozkien tarifak, ondorioak 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituztenak, %1,5 gehitu direla, eta saihestu nahi izan dela tarifak izoztea hurrengo urtean hauteskundeak direlako. Hala ere, nabarmentzekoa da ordenantza fiskalak aldatzeko proposamenean hobari ugari aplikatu direla.

Bukatzeko, Anuska Esnalek eskerrak ematen dizkie udalbatzarkide guztiei ordenantza fiskalak eta eranskinak aldatzeko proposamena, laugarren urtez jarraian, aho batez onartu dutelako.

Ana Priede zinegotziak (PSE-EE-PSOE) hartzen du hitza eta adierazten du ordenantza fiskal horiek 2019-2023 udal-agintaldi honetako azkenak direla eta, hori dela eta, eskerrak eman besterik ezin duela egin Ogasun- eta pertsonal-batzordeko kideei, oro har, eta, bereziki, alkateari eta udal-teknikariei (kontu-hartzaileari eta diruzainari), egindako lanagatik.

Ana Priede zinegotziak bukatzen du adieraziz ordenantza fiskaletan eta eranskinetan aldaketak egiteko proposamenak ez dakarrela zerga-kargaren gehikuntza handirik, aplikatu beharreko tarifak, orokorrean, %1,5 handitu direlako, tarifa askok igoerarik izan ez dutelako, eta, gainera, hobari ugari aplikatuko direlako.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOAREN 10/2022 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA, KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 10/2022 zenbakidun espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 42.300 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta Ogasun- eta pertsonal-batzordeak 2022ko irailaren 29an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren aurrekontu propioaren 10/2022 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 42.300 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-Kontu-hartzailetza

b) Espedientea aztertzeke eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteke epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteke aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeke arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteke lekua: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

3.-ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOAREN 11/2022 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 11/2022 espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 134.000 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasun- eta pertsonal-batzordeak 2022ko irailaren 29an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren aurrekontu propioaren 11/2022 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 134.000 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-Kontu-hartzailatza

b) Espedientea aztertzeke eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteke epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko lekua: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, AGITAX GIPUZKOAKO TAXI ELKARTEAK BIDALITAKO 2023RAKO TAXI-TARIFA URBANOAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; Taxiaren Gipuzkoako Elkarteak eskaria aurkeztu du, 2023an Orioko auto-taxi zerbitzuaren tarifak %10,5 igotzea proposatuz.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasun- eta pertsonal-batzordeak 2022ko irailaren 27an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira, **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

Orioko auto-taxi zerbitzuaren tarifak %10,5 **IGOTZEA** 2023an. Onartu diren tarifak hauek dira:

AUTO-TAXI ZERBITZUAREN TARIFA URBANOAK 2023			
PROPOSAMENA	GUTXIENEO TARIFA	KILOMETRO BAKOITZEKO	ITXOITEN PASATAKO ORDUA
1. TARIFA*	6,2286	1,3292	25,3848
2. TARIFA**	7,4144	2,1200	41,4356

Gutxieneko tarifaren barruan sartuta daude ibilbideko 1,5 kilometro edo itxoiten pasatako 5 minutu.

(*) Tarifa hau lanegunetan aplikatuko da, 07:00etatik 22:00etara.

(**) Tarifa hau egunero aplikatuko da, 22:00etatik 07:00etara. 2. tarifa aplikatuko da, baita ere, igandetan, larunbatetan eta jaiegunetan, eta abenduaren 24an eta 31n, 07:00etatik 22:00etara.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, BPXPORT KIROL ZERBITZUAK SL ENPRESARI KARELA KIROLDEGIKO KUDEAKETA INTEGRALAREN ETA ARRAUNETXE ETA MENDIBELTZ FUTBOL-ZELAIA MANTENDU ETA GARBITZEKO ZERBITZUEN ADJUDIKAZIOA BIGARRENEZ LUZATZEKO PROPOSAMENA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasun- eta pertsonal-batzordeak 2022ko irailaren 27an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira, **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA BPXPORT KIROL ZERBITZUAK SL enpresari KARELA kiroldegiko kudeaketa integralaren eta Arraunetxe eta Mendibeltz futbol-zelaia mantendu eta garbitzeko zerbitzuen adjudikazioa bigarrenez luzatzea, 2024ko urtarrilaren 31 arte. Zerbitzu horiek kontratatzeke lehiaketa publiko berria, beraz, ordurako bukatuta egon behar du.

Emandako botoa azaltzeko, Anuska Esnal alkateak hartzen du hitza eta adierazten du udalbatzarrak 2013an erabaki zuela BPXPORT KIROL ZERBITZUAK SLri adjudikatzea KARELA kiroldegiko kudeaketa integrala eta Arraunetxe eta Mendibeltz futbol-zelaia mantendu eta garbitzeko zerbitzuak. Hasiera batean, 6 urteko eperako adjudikatu zitzaion, luzapenak egiteko aukerarekin, gehienez ere beste 4 urtez. Beraz, BPXPORT KIROL ZERBITZUAK SL merkataritza-entitatearen ibilbide profesionala, lehenengo lizitazio publiko honi dagokionez, 2024ko urtarrilaren 31n bukatuko da.

Anuska Esnalek adierazten du, baita ere, lehenengo lizitazio publiko honek iraun duen bitartean eragin handia izan duela, alde batetik, Covid-19ren pandemiak eta, bestetik, Udaleko kirol-teknikaria zerbitzutik behin betiko apartatu izanak. Horrek guztiak udal-instalazio horien erabiltzaileen jaitziera nabarmena eragin du, eta BPXPORT KIROL ZERBITZUAK SL enpresa adjudikaziodunak idatzi bat aurkeztu du, esanez uko egiten diola dagokion luzapenari, hornigaien prezioak asko igo direlako; kontuan hartu behar da, gainera, udal-instalazio horietako langileek, enpresa adjudikaziodunak kontratuak, ez dutela ordainsarien igoerarik izan 2010az geroztik.

Adierazten du, beraz, gaurko udalbatzarrean hartutako erabakiaren bidez, hiru erronka planteatzen zaizkiola Udalari:

- Udalak bere gain hartuko ditu hornidurak direla-eta (gasa, elektrizitatea...) sortutako gailak, kontratuaren oreka ekonomiko-finantzarioa bermatzeko.
- Udalak bere gain hartuko ditu udal-instalazio horietako langileen hitzarmen kolektiboa sinatzeak dakartzan ordainsarien egokitzapenak sortutako gailak.

- Udalak gogoeta sakona egin behar du bere kirol-instalazioen kudeaketa integralari buruz eta gogoeta horrek isla izan behar du, nahitaez, egingo den lehiaketa publiko berrian.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, PROZEDURA NEGOZIATU BIDEZKO LEHIAKETA PUBLIKOA, ORIOKO UDAL-KANPINEAN AISIALDIKO IGERILEKUA ETA UR-PARKEA ERAIKITZEKO OBRAK KONTRATATZEKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Orioko udal-kanpinean aisialdiko igerilekua eta ur-parkea eraikitzeke obrak kontratatzeke bigarren lizitazio publikoaren tramitazioa ohiko prozeduraz egin zen, udalbatzarraren 2022ko urtarrileko ohiko bilkuran hartutako erabakiaren arabera, eta proposamenak aurkezteko epea 2022ko martxoaren 15ean bukatu zen. Proposamenak aurkezteko epean ez zen proposamenik aurkeztu, eta, beraz, nahitaez, hutsik utzi behar da bigarren lizitazio publiko hori, lizitatzailerik aurkeztu ez delako, eta, ondorioz, kontratazio publikoko beste prozedura bat abiatu behar da, negoziatua, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean eta aplikatu beharreko araudi bateratuan xedatutakoa kontuan hartuta.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, proposamenak aurkezteko epean gertutakoa ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- HUTSIK UZTEA Orioko udal-kanpinean aisialdiko igerilekua eta ur-parkea eraikitzeke obrak kontratatzeke bigarren lizitazio publikoa, lizitatzailerik aurkeztu ez delako.

2.- ONARTZEA hirugarren lehiaketa publikoa, prozedura negoziatu bidezkoa, Orioko udal-kanpinean aisialdiko igerilekua eta ur-parkea eraikitzeke obrak kontratatzeke.

Emandako botoa azaltzeko, Anuska Esnal alkateak hartzen du hitza eta adierazten du Orioko udal-kanpinean aisialdiko igerilekua eta ur-parkea eraikitzeke obrak kontratatzeke orain arte egin diren bi lizitazio publikoak hutsik geratu direla, lizitatzailerik aurkeztu ez delako, eta horregatik egiten dela hirugarren saiakera hau.

7.- ESKARIAK ETA GALDERAK

Ez ziren izan

Horrenbestez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,